

# STM


San Telmo Museoa

EN LAS ORILLAS DEL  
**N I L O**  
IBAIAREN ERTZEAN

Samuel Aranda

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN  
2016/04/13 - 2016/06/05  
**SAN TELMO MUSEOA**

Laborategia espazioan / Espacio Laboratorio  
Sarrera doan / Entrada gratuita



ARROZAN EGIALDIA/ARROZALDIA

**STM**

San Telmo Museoa

donostiakultura<sup>2008</sup>



Donostia 2016  
Herriak 2016

ERAKUNTZA ERREKONSTRUKTIBOAK



PROIEKTU BARRUTIAK / PROIEKTU BARRUTIAK

eitb EL DIARIO VASCO

ANTENA 3

kutxa

ERAKUNTZA ERREKONSTRUKTIBOAK

berria<sup>®</sup> GARA<sup>®</sup> naiz<sup>®</sup>

Fundación BBVA



# “NILO IBAIAREN ERTZETAN”, SAMUEL ARANDAREN ARGAZKIAK SAN TELMO MUSEOAN

*San Telmo Museoak “Nilo ibaiaren ertzetan” erakusketa aurkezten du, Egiptori buruzko argazki-proiektu sakona, Nilo ibaia ardatz nagusi gisa hartuz. Laborategian bisitatu ahal izango da apirilaren 13tik ekainaren 5era bitartean, eta sarrera doan da.*

Erakusketak 43 irudi inguru biltzen ditu, Samuel Aranda argazkilariak ia Egipto osoan barrena dokumentatzeko egindako ibilbidearen emaitza izanik, eta herrialdea egituratzen duen Nilo ibaia ardatz nagusi gisa hartuz. Zuri-beltzean eta koloretan egindako argazkiak dira, kontraste handiak dituen herrialdea islatzen dutenak, normalki handik iristen diren berriek erakusten digutenaz askoz haratago.

Samuel Aranda argazki-kazetariaren lanak, bere irudien bitartez, azken 15 urteetan munduan sortutako hainbat arazo ezagutzeko aukera eman digu. Hainbat sari ospetsu eman dizkiote, adibidez Argazkilaritza Sari Nazionala (2006) edo World Press Photo (2012). San Telmo Museoan aurkezten duen *Nilo ibaiaren ertzetan* erakusketarekin Egiptoko eguneroko errealitatera hurbiltzea proposatzen du, herrialdea egituratzen duen Nilo ibaia ardatz nagusi gisa hartuz.

## **Egileak proiektua aurkezten du:**

*Kazetaritzaren eta argazkigintzaren mundu honetan hasi nintzen gure lanbideak hainbat gauza aldatzen lagundu zezakeela ziur nengoelako. Ideia hori oinarritzat hartuz, nire inguruan gertatzen ziren eta ados ez nengoen gertakarien argazkiak egiten eta gertakari horiek salatzen hasi nintzen. Orduz geroztik 15 urte daramatzat argazkigile gisa lan eginez, herrialde askotara eta planetako hainbat bazterretara joanez, urrutiko kulturak eta lekuak ezagutuz, zenbaitetan guk uste duguna baino gure antza handiagoa dutenak. Eta nire argazkiak hainbat artikuluren alboan argitaratuta ikusten ditudanean hainbat galdera datozkit burura behin eta berriz, gero eta maiztasun handiagoarekin: Irakurleari leku hartan gertatzen ari dena azaltzen ari al gara benetan? Topiko soilean geratzen al gara? Zergatik azpimarratzen da hainbeste indarkeria?*

*Sentipen hori eta zalantza horiek handitu egiten dira Ekialde Ertainean lan egiten dudanean. Interes handia dago herrialde horietatik datozen indarkeriari buruzko berriei dagokienez, eta hainbat kasutan artikulua seriean egindako produktu soilak dira, gertatzen ari denaren zergatian sakondu gabe eta irakurleari hori azaltzen ahalegindu gabe. Adibide argia udaberri arabiarra (mendebaldeko kazetariren batek jarritako izena) izan zen: ehunka kazetari eta argazkilari joan ginen Tunisia, Egipto, Libia, Siria, Yemen, Bahrain eta inguruko herrialdeetara gertakarien berri ematera. Albisteetan herrialde horiei buruz herrialde bakarra izango balira bezala hitz egiten zen, haien gizartearen artean bereizketarik egin gabe, Ekialdea ulertzeko oso modu kolonialistarekin.*

*Gaur egun, kazetariok eta argazkilariok gure lana egun edo aste gutxiren buruan egin behar dugu; erreportajearen generoa komunikabideetan desagertzeko arriskuan dago. Presaka ibili beharrene eta*

*murrizketen ondorioz ia ezinezkoa da proiektu bakar batean hainbat astez, hilabetez edo urtez jardutea. Adibidez Egipton, Mubaraken diktadura deuseztatu zuen iraultzaren ondoren, ez zen ia inor geratu Al-Sisi presidente berriaren estatu-kolpea dokumentatzeko. Mediterraneoko herrialde horretan izandako iraultzaren arrazoiak azaltzeko ahalegin txikia egin dugu, gatazka horretan soil-soilik Tahrir plazan gertatu zenari eskainiz arreta.*

*Helburua:*

*Proiektu honen helburu nagusia Egiptoren eguneroko errealitatea erakutsiko duen argazki-lan sendo bat egin ahal izatea da, ahalik eta herritar gehienengana iristen saiatuz, haiei erakusteko Egipton —eta arabiar munduan oro har— dena ez dela indarkeria, komunikabideetatik hori ondoriozta daitekeen arren. Maila profesionalean, baita maila pertsonalean ere, azken urteotan egiten saiatu naizen proiektua da, inolako komunikabideren presiorik eta exigentziarik jasan gabe.*

*Eta hori guztia, ikerketa-lan zehatza eta sakona egiteko xedez, horixe baita proiektu bat hasten dudanean bilatzen dudana espiritua; eta are gehiago hain pertsonala eta pozgarria den proiektu honetan, BBVA Fundaziotik lortutako laguntzarekin egin ahal izango dudana.*

## **Samuel Arandaren biografia laburra**

Santa Coloma de Gramanet, 1979

Azken 15 urteak munduan zehar gatazkak, migrazioak eta arazo sozialak dokumentatzen igaro dituen fotokazetaria. Normalean *The New York Times* egunkariarentzat egiten du lan, batez ere Espainian, Ekialde Ertainean eta Afrikan. Pakistan, Libano, Egipto, Yemen, Kolonia, Txina, Palestina eta Sierra Leonari buruzko erreportajeak egin ditu, besteak beste, aipatu egunkari estatubatuarrarentzat, baita beste zenbait egunkariarentzat ere, hala nola: *Stern*, *Le Monde*, *El País Semanal* edo *Sunday Times Magazine*.

Bestalde, 2009. urteaz geroztik Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Fotokazetaritzako Masterreko irakasle laguntzailea da.

2006an, Europara iristen saiatzen ziren Saharaz hegoaldeko etorkinei buruz egin zuen erreportajearen ondorioz Argazkilaritza Sari Nazionala eman zion ANIGP—TV Prentsa eta Telebistako Informatzaile Grafikoen Elkarte Nazionalak.

2011n hasi ziren herrialde arabiarren matxinaden zuzeneko lekuko izan zen, Tunisia, Egipto, Libia edo Yemengo gatazkaguneetan barrena. 2012. urtean World Press Photo of The Year saria lortu zuen, Yemenen ateratako argazki batengatik. Urte horretan bertan, Santa Coloma de Gramanetek —bere jaioterriak— Premi Ciutat saria eman zion.

*The New York Times* egunkariak Espainiako krisi ekonomikoari buruz 2012. urtean argitaratu zituen Arandaren argazkiek eztabaida politiko handia sortu zuten eta krisiaren errealitateak eta Espainiako klase ertainean gogor eragin izanak atentzioa eman zuten.

Era berean, azpimarratzekoak dira Sierra Leonan eta Ginean ebolari buruz egin dituen azken erreportajeak, non Arandaren argazkiek agerian uzten duten birusak herritarrengan eragindako kalte suntsigarria, krisiari aurre egiteko nazioarteko laguntza nahikoa ez zela salatuz.

Honako leku hauetan egin ditu erakusketak: Fundación Telefónica (Txile), Fundación Caixa (Brasil), CCCB (Bartzelona), La Virreina (Bartzelona), Visa Pour L'Image (Perpignan), Silk Road Gallery (Teheran, Iran) eta New Yorkeko Cervantes Institutua, besteak beste.

Gaur egun, Kataluniako iparraldean dagoen Crespià izeneko udalerrian bizi da.

## Nilo ibaiaren ertzetan Xavier Aldekoaren testua

Egipto osoa tren bakar batean sartzen da. Arratsaldeko zazpiak puntu-puntuan, Kairoko Ramses geltokia presa daramaten bidaiari, maleta erraldoi eta makinistaren txilibitua entzuten denean korrika doazen guraso eta haurren joan-etorria da. Giroa ketan murgilduta, haragi errearen usaina dario eta txoko guztietan zaborra dago. Bagoi merkeen atzetan hainbat gizonak bultza egiten dute tokia hartzeko; eta ez dagoela dirudi: jendea zutik eta pilatuta ikusten da leihoetan zehar. Azkenean, guztiak sartu dira. Lehen mailako bagoietan, wifidunetan, eserleku zabalak eta komunak erabiltzen diren bakoitzean garbitzen dituen bi gizonetako, lekua dago soberan. Han, bidaiariak, arkeologo argentinar bat kenduta egiptoarrak guztiak, bidelagunen aurrean beren burua aurkeztu, barre egin eta janaria konpartitzen dute. Trena Asuanerantz, herrialdeko hegoalderantz, abiatu denean, trenaren erdialdean egon eta kutsu koloniala duen jatetxe-bagoia —zurezko eserlekuak, jatetxe-bagoia, kuxin berdea, gortina horixkak eta zerbitzari txalekoduna— Egiptoko errealitate bien bereizketa gune bihurtzen da, eta aldi berean topaleku. Belo gorria eta larruzko bota altuak daramatzen neska eder-eder bat bere *iPhone*-ari begira dago, bigarren mailako bagoietako haurtalde bat komunen aurrean ezkutaketan jolasten ari den bitartean. Ahmed Nalib\*, freskagarri-lantegi batean lan egiten duen hogeita hamar urte inguruko behargina, behe-mailako bagoietatik ateratzen da erre nahian eta Hosni Mubarak boteretik kendu zuen iraultzatik bost urtera Egiptoren egoerari buruz hitz egiteko gogoz. Ahopean hitz egiten du. *Iraultza zoragarria izan zen, baina Egipton ez dakigu demokrazia zer den. Ogia, askatasuna eta justizia soziala eskatzen genituen eta harrapatuta eta islamaren eta militarren pistolen artean aukeratu beharrean bukatu genuen, bota du.* Nalib Asuanera doa, urte osoan dituen bost opor-egunetan deskonektatzera. Ez du egun libre gehiago baina ez du protesta egiten, *okerragoa izan zitekeen-eta*, dio. Nalibentzat itxaropenik eza eztanda berri baten txinparta izango da. *Lanik ez dago eta haserrea oso handia da. Duela milaka urte zutik dirauten tenplu zoragarriak eraikitzeko gai ginen, eta gaur egun, ordea, gobernua ez da kapaz bi urtetan apurtuta ez dagoen errepidea eraikitzeko. Ustel hutsak dira!*, adierazi du. Ohar bat eginez bukatu du zigarroa: *Hau ez da amaitu. Asko jota hiru urte barru beste iraultza bat egongo da. Eta ez da azkena izango, ziurtatu du.*

Desio asaldatzaille horiek dira 2011ko urtarrilaren 25ean Tahrir plaza bete eta 17 egunetan Mubarak bota zuen iraultzetik geratzen den apurra. Anaia Musulmanak, hasiera batean laikoak eta aurrerakoiak izan ziren haiek, askatasun eta duintasunerako irrika haietaz baliatu eta haien egitura sendoa eta fidel-talde handia erabili zituen beren ordezkaria zen Mohamed Morsi herriko lehen buruzagi demokratikoa bihurtzeko. Gutxi iraun zuen. Militarren 2013ko estatu-kolpe batek Abdel Fattah al Sisi mariskalaren esku utzi zuen boterea, eta horrek gogor erreprimitu zituen Morsiren jarraitzaileen kezak. Kairoko protesta-kanpamendua hustu eta manifestazioak indarkeriaz desegitearen ondorioz milaka lagun erail eta beste asko eta asko indarrez atxilotu eta desagertu ziren. Nilo ibaiaren ertzetan aro ilun berria ezarri berria zen: ordutik, biderkatu egin dira preso politikoak —50.000 eta 60.000 bitartean, iturrien arabera— eta Anaia Musulmanen buruzagiak deserriratu edo kartzelaratu daude. Nazioarteko erakundeek poliziaren torturak salatu eta

Egiptoko historia modernoko erregimenik zapaltzaileena dela diote.

Asuango hirian, non milaka manifestarik tiranokeriaren aurkako aldarrikapenak Niloren uretan behera entzunarazi zituzten, saminez onartzen da egoera berria. Arafá Ramadan\* ekintzaileak bere etxean eman digu hitzordua, nondik ibaiaren ikuspegi pribilegiatua dagoen eta non ordu horretan hainbat txalupa eta bela zuridun falukaren bat edo beste ikusten diren. Arafak bere izena aldatzeko eskatu du lehen egunetik matxinadetan esku hartu zuelako, eta ez du mingainari hozka egiteko asmorik. *Iraultzaz ez da ezer geratzen. Ezer ez. Orain lehen, Mubarakekin, baino okerrago ere bagaude. Protestatuz gero, desagertzen zara. Polizia Daesh baino okerragoa da*, dio. Bere aurpegiera zorrotz eta ilunak harro erakusten dituen sustrai afrikarrak ditu, eta bere gorputz meheak engainatzen du: topaleku dugun *haima* putz eginez hegaldatzeko energia du. *Nik edukazioa eta duintasuna eskatzen ditut, baina edozein kritika terrorismotzat jotzen da*, adierazi du.

Metrailadore eta granada-jaurtitzazilez armatutako hainbat militarrek ibilgailu guztien hirirako sarrera kontrolatzen dute 1961 eta 1971 bitartean 35.000 langilek eta ingeniariak eraiki zuten Asuango presaginetik. Presaren mutur batean, bi soldaduk autoak behatzen dituzte koraza-auto batetik. Sinain Daeshen mehatxupean eta mendebalean ondoko Libiaren ezegonkortasunarekin, terrorismoaren aurkako borroka, Al Sisiren erregimenari eusten dion oinarri legitimatzailea da. Saudi Arabiaren, Arabiar Emirerrien, Kuwaiten zein EEBBen laguntza finantzario garrantzitsuak, iaz 1.500 milioi dolarretara heldu zenak, ekonomia prekarioari eutsi dio. Iaz %15 jaitsi ziren turismoaren diru-sarrerak eta 2016an turista-kopurua berriro jaiste da aurreikuspena.

Horrexegatik, Waled Sad turistentzako ontzi baten patroiarri ez zaio axola bere lehenetasunak azaltzea. Brankan iraultzan sonatu egin zen matrikula-pegatina margotuta dago, ingelesez eta arabiera idatzitako *25-january* datarekin. Baina Waledek ez du iraultzez hitz egiten ere entzun nahi. *Gustuko nuen Mubarak. Lehen dena turistez beteta zegoen. Orain, berriz, begiratu zure ingurura, ez dago ezer*, dio. Gure inguruan badago zerbait, baina ia okerragoa da: turistentzako ehunka txalupa lotuta eta erabat hutsik ur gainean. Philaen, Nasser aintzirako uharte batean, egiptoarrak dira Isisi eskainitako tenpluetako horma eta zutabeetako hieroglifoei tentelduta so dauden ia turista guztiak. Begien bistan, berriz, asiarren talde pare bat, bikote britainiar bat eta familia aleman bat.

Garbi Sehiel auzoaren amaieran, afrikar kulturari buruzko buztinezko Disneylandia antzeko bat, nonahi gameluak eta oroigarriak ikus daitezkeela, eta bertan egiptoar nerabe talde batek ondo pasatzen du duna bateko harea gainean surf egiten. Denak Kairokoak dira eta barrez lehertzen dira adiskideren bat zartada itzela hartzen duenean. Maharentzat, ikuskizuna nahiko urrutitik begiratzen duen zuzenbideko ikaslearentzat, laguntzeko unea da. *Lagundu behar dugu. Turismoa garrantzitsua da Egiptorentzat eta jende asko gaizki pasatzen ari da*, uste du. Iraultzatik igarotako bosgarren urteari eta Mubarak buruz duen iritzia galdetu diodanean iheskor erantzun du. *Iraultzatik bosgarren urtea... Mmm, bost urte dagoeneko?*

\*Izenak segurtasunagatik aldatu dira.

# “EN LAS ORILLAS DEL NILO”, FOTOGRAFÍAS DE SAMUEL ARANDA EN EL MUSEO SAN TELMO

*El Museo San Telmo presenta la exposición “En las orillas del Nilo”, un proyecto fotográfico en profundidad sobre Egipto que utiliza como canal conductor el río Nilo. Se podrá visitar en el Laboratorio entre el 13 de abril y el 5 de junio, con entrada gratuita.*

La muestra recoge 43 imágenes que son el resultado de un recorrido realizado por el fotógrafo Samuel Aranda por la casi totalidad de Egipto para documentarlo, utilizando como canal conductor el río Nilo, que vertebra el país. Se trata de fotografías en blanco y negro, y en color que reflejan un país de contrastes que va mucho más allá de lo que nos muestran las noticias que habitualmente llegan desde allí.

El trabajo del fotoperiodista Samuel Aranda nos ha permitido conocer, a través de imágenes, diferentes problemáticas producidas en el mundo en los últimos 15 años. Distinguido con galardones tan prestigiosos como el Premio Nacional de Fotografía (2006) o el World Press Photo of the Year (2012), la exposición *En las orillas del Nilo*, que presenta el Museo San Telmo, propone un acercamiento a la realidad diaria de Egipto.

## El autor presenta el proyecto

*Comencé en este mundo del periodismo y la fotografía convencido de que nuestro oficio podía ayudar o contribuir a cambiar algunas cosas. Con esa idea empecé a fotografiar y denunciar hechos que ocurrían a mi alrededor, y con los que yo no estaba de acuerdo. Desde entonces, llevo 15 años trabajando como fotógrafo, recorriendo muchos países y diferentes rincones del planeta, conociendo culturas y lugares lejanos que a veces son más parecidos a nosotros de lo que creemos. Y cada vez con más insistencia me vienen a la mente unas preguntas cuando veo publicadas mis fotografías junto a algunos artículos: ¿Realmente estamos explicando al lector lo que ocurre en dicho lugar? ¿Nos quedamos solo en los tópicos? ¿Por qué se hace tanto énfasis en la violencia?*

*Este sentimiento y estas dudas se agrandan cuando trabajo en Oriente Medio. Hay un gran interés por las noticias sobre la violencia que viene de estos países, y a veces los artículos son meros productos en serie que no profundizan ni intentan explicar al lector el porqué de lo que está ocurriendo. Un claro ejemplo fue la primavera árabe (titulada así por algún periodista occidental): centenares de periodistas y fotógrafos nos desplazamos a cubrir los acontecimientos en Túnez, Egipto, Libia, Siria, Yemen, Baréin... En las noticias se hablaba de estos países como si fueran todos uno, sin hacer diferencias entre sus sociedades, en una forma muy colonialista de entender Oriente.*

*Hoy en día, los periodistas—fotógrafos tenemos que realizar nuestros trabajos en pocos días o semanas; el género del reportaje corre peligro de extinción en los medios de comunicación. Las prisas y los recortes han hecho casi imposible poder dedicar semanas, meses o años a un solo proyecto. Así es como después de la revolución en Egipto, que acabó con la dictadura de Mubarak, casi nadie se quedó para documentar el golpe de Estado del nuevo presidente Al-Sisi. Poco hemos hecho por intentar explicar las razones de la revuelta en el país mediterráneo, centrándonos exclusivamente en lo que pasó en la plaza Tahrir durante el conflicto.*

Objetivo:

*El objetivo principal de este proyecto es poder crear un trabajo fotográfico sólido que muestre la realidad diaria de Egipto, intentando llegar al mayor número de ciudadanos posible para que podamos mostrarles que Egipto —y el mundo árabe en general— no es todo violencia, como parece derivarse de los medios de comunicación. A nivel profesional e, incluso, personal, es un proyecto que llevo intentando durante los últimos años, sin tener las presiones y exigencias de ningún medio de comunicación.*

*Y todo, en aras de un trabajo de investigación riguroso y profundo, espíritu que siempre persigo cuando inicio un proyecto; y mucho más cuando se trata de uno tan personal e ilusionante como éste, que puedo afrontar con la ayuda obtenida por la Fundación BBVA.*

### **Breve biografía de Samuel Aranda**

Santa Coloma de Gramanet, 1979

Fotoperiodista que ha pasado los últimos 15 años documentando conflictos, migraciones y problemáticas sociales alrededor del mundo. Trabaja de forma habitual para *The New York Times*, principalmente en España, Oriente Medio y África. Ha realizado reportajes sobre Pakistán, Líbano, Egipto, Yemen, Colombia, China, Palestina, Sierra Leona, entre otros, para el citado diario estadounidense, además de para otros medios como *Stern*, *Le Monde*, *El País Semanal* o *Sunday Times Magazine*.

Es también profesor colaborador en el Máster de Fotoperiodismo de la Universidad Autónoma de Barcelona desde 2009.

En 2006, su reportaje sobre los inmigrantes subsaharianos intentando llegar a Europa le supuso el Premio Nacional de Fotografía, otorgado por la ANIGP–TV.

Fue testigo directo de las revueltas de los países árabes iniciadas en 2011, recorriendo los puntos calientes de Túnez, Egipto, Libia o Yemen. En 2012, recibió el premio World Press Photo of The Year por una imagen realizada en Yemen. Ese mismo año, Santa Coloma de Gramanet —su ciudad natal— le concedió el Premi Ciutat.

Sus fotografías sobre la crisis económica en España, publicadas en 2012 por *The New York Times*, provocaron un gran debate político y llamaron la atención sobre la realidad y la dureza de dicha crisis sobre la clase media española.

También destacan sus últimos reportajes sobre el ébola en Sierra Leona y Guinea, en los que las instantáneas de Aranda mostraron los efectos devastadores del virus en la población, denunciando la insuficiencia de ayuda internacional para combatir la crisis.

Ha expuesto en Fundación Telefónica (Chile), Fundación Caixa (Brasil), CCCB (Barcelona), La Virreina (Barcelona), Visa Pour L'Image (Perpignan), Silk Road Gallery (Teherán, Irán) y el Instituto Cervantes de Nueva York, entre otros.

Actualmente reside en Crespià, un pueblo al norte de Cataluña.

## En las orillas del Nilo

### Texto de Xavier Aldekoa

Todo Egipto cabe en un tren. A las siete en punto de la tarde, la estación Ramsés de El Cairo es un pasacalles de pasajeros apresurados, maletas exageradas y padres con niños que corren cuando se escucha el silbato del maquinista. El humo envuelve el ambiente, huele a carne asada y hay basura en los rincones. En las puertas de los vagones populares varios hombres se empujan para hacerse sitio; y no parece haberlo: a través de las ventanillas se ve a la gente de pie y apelotonada. Al final, entran todos. En los vagones de primera clase, con wifi, sillones amplios y dos tipos que limpian los baños tras cada uso, sobra espacio. Allí, los viajeros, todos egipcios menos un arqueólogo argentino, se presentan a los compañeros de viaje, ríen y comparten su comida. Cuando el tren arranca destino a Asuán, en el sur del país, el vagón-restaurant situado en mitad del tren y de aroma colonial —butacas de madera, cojín verde, cortinas amarillentas y camarero con chaleco— se convierte en el punto de separación, y a la vez de encuentro, de ambas realidades de Egipto. Una chica guapísima, de velo rojo y botas altas de piel, se sienta en una mesa a tomar un té y mira su *iPhone* mientras un grupo de niños de los vagones de segunda juegan al escondite frente a los lavabos. Ahmed Nalib\*, treintañero empleado en una fábrica de refrescos, emerge de los vagones humildes con ganas de fumar y de charlar sobre qué es hoy Egipto, cinco años después de la revolución que derrocó al dictador Hosni Mubarak. Habla en voz baja. *La revolución fue fantástica, pero en Egipto no sabemos qué es la democracia. Pedíamos pan, libertad y justicia social y acabamos quedando atrapados y teniendo que escoger entre el islam o las pistolas de los militares*, escupe. Nalib viaja a Asuán para desconectar en sus cinco días de vacaciones anuales. No tiene más días libres pero no protesta porque, dice, podría ser peor. Para Nalib la desesperanza será la chispa de un nuevo estallido. *No hay trabajo y el enfado es enorme. ¿Hace miles de años éramos capaces de construir templos magníficos, que siguen en pie, y el gobierno hoy no es capaz de construir una carretera que no esté rota en dos años? ¡Son unos corruptos!*, apunta. Apura el cigarrillo con una advertencia: *Esto no ha acabado. En tres años como mucho, habrá una nueva revolución. Y no será la última*, asegura.

Esos deseos rebeldes son de lo poco que queda de la revolución que el 25 de enero de 2011 llenó la plaza Tahrir y derrocó a Mubarak 17 días después. Aquellas ansias de libertad y dignidad, inicialmente laicas y progresistas, fueron aprovechadas por los Hermanos Musulmanes, que se sirvieron de su sólida estructura y su nutrida legión de fieles para convertir a su representante, Mohamed Morsi, en el primer líder democrático del país. Duró poco. Un golpe de estado militar en 2013 alzó en el poder al mariscal Abdel Fattah al Sisi, que reprimió con dureza las quejas de los seguidores de Morsi. El desalojo de los campamentos de protesta en El Cairo y la disolución por la fuerza de manifestaciones se saldó con miles de personas asesinadas y una ola de detenciones y desapariciones forzosas. Se acababa de instaurar una nueva era oscura a las orillas del Nilo: desde entonces, los prisioneros políticos se han multiplicado —entre 50.000 y 60.000, según las fuentes— y los líderes de los Hermanos Musulmanes están exiliados o en prisión. Organizaciones internacionales denuncian torturas de la policía y señalan al régimen como el más represivo de la historia moderna de Egipto.

En la ciudad de Asuán, donde miles de manifestantes hicieron oír Nilo abajo sus proclamas contra la tiranía, se asume la nueva situación con amargura. El activista Arafa Ramadán\* nos cita en su casa, que tiene una vista privilegiada del río, donde a esa hora navegan varias barcas y alguna faluca



de vela blanca. Arafa pide que cambie su nombre porque participó desde el primer día en las revueltas y no se piensa morder la lengua. *No queda nada de la revolución. Nada. Ahora estamos incluso peor que antes con Mubarak. Si protestas, desapareces. La policía es peor que Daesh*, dice. Sus facciones afiladas y oscuras delatan sus raíces nubias, que él exhibe con orgullo, y su cuerpo delgado engaña: tiene energía para hacer volar de un soplido la *haima* donde charlamos. *Yo pido educación y dignidad, pero cualquier crítica es acusada de terrorismo*, señala.

Desde lo alto de la presa de Asuán, construida entre los años 1961 y 1971 por 35.000 obreros e ingenieros, varios militares armados con ametralladoras y lanzagranadas controlan la entrada a la ciudad de todos los vehículos. En uno de los extremos de la presa, dos soldados observan los coches desde un vehículo acorazado. La lucha contra el terrorismo, con la amenaza de Daesh en el Sinaí y la inestabilidad de la vecina Libia por el oeste, es el cimiento legitimador sobre el que se aguanta el régimen de Al Sisi. El importante apoyo financiero de países como Arabia Saudí, Emiratos Árabes, Kuwait o incluso de EE UU, cuya ayuda sumó 1.500 millones de dólares el año pasado, han aguantado una economía precaria. El año pasado, los ingresos del turismo cayeron un 15% y la expectativa es que en 2016 la cifra de turistas vuelva a bajar.

Por eso a Waled Sad, patrón de un barco para turistas, no le importa mostrar sus preferencias. En la proa hay pintada la matrícula-pegatina que se hizo famosa durante la revolución, con la fecha *25-january*, escrita en inglés y árabe. Pero Waled no quiere oír ni hablar de revoluciones. *Me gustaba Mubarak. Antes todo estaba lleno de turistas. Ahora mira a tu alrededor, no hay nada*, dice. A nuestro alrededor sí hay algo, pero es casi peor: cientos de barcas para turistas amarradas y totalmente vacías flotando en el agua. En Philae, una isla del lago Nasser, casi todos los turistas que miran embobados los jeroglíficos de las paredes o las columnas de los templos dedicados a Isis, son locales. A la vista, apenas un par de grupos asiáticos, una pareja británica y una familia alemana.

Al final del barrio de Garbi Sehiel, una especie de Disneylandia de barro de la cultura nubia, con camellos y *souvenirs* por todos lados, un grupo de adolescentes egipcios se divierte haciendo surf sobre la arena de una duna. Todos vienen de El Cairo y se desternillan cada vez que algún colega se da un trompazo descomunal. Para Maha, estudiante de derecho que mira el espectáculo desde una distancia prudente, es momento de arrimar el hombro. *Tenemos que ayudar. El turismo es importante para Egipto y mucha gente lo está pasando mal*, opina. Cuando le pregunto su opinión sobre el quinto año de la revolución y la caída de Mubarak, responde evasivo. *El quinto año de la revolución.... Mmm ¿cinco años ya?*

\*Los nombres han sido cambiados por seguridad.